

**Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala****47. zenbakia****Data 1997-03-11****3810 orria****3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK**

ALDUNDIA - OGASUNA ETA FINANTZAK

**Otsailaren 27ko 119/1997, 620 inporimaki eredu aldutzen duena (bigarren eskuko ibilgailuen erosketari)**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA Otsailaren 27ko 118/1997 FORU AGINDUA, ibilgailu erabilien salerosketatik aurkeztu behar den Ondare Eskualdaketen gaineko Zergaren aitortpen-likidazioaren 620 eredu aldatzekoa.

Otsailaren 15eko 86/1990 Foru Aginduak ibilgailu erabilien salerosketatik aurkeztu behar den Ondare Eskualdaketen gaineko Zergaren aitortpen-likidazioaren 620 eredu onartu zuen besteak beste.

Igaro den denborak eta ereduaren erabileran hartu den esperientziak komenigarri egiten dute ereduaren jarraibideetan hainbat aldaketa sartzea berau betetzea errazagoa izan dadin.

Horren indarrez, XEDATU DUT

1. artikulua. 620 eredu onartzea.

620 eredu berria, ibilgailu erabilien salerosketatik Ondare Eskualdaketen gaineko Zergaren aitortpen-likidaziorako erabili behar dena eta Foru Agindu honetan eraskin modura azaltzen dena, onaturik geratzen da.

Ibilgailu erabiliak erosten dituztenek erabili eta bete beharko dute eredu hau.

2. artikulua. 620 eredu aurkezteko epea.

Aitortpen-likidazioa jasoko duen 620 ereduaren aurkezpena eta, hala badagokio, haren ordainketa, ibilgailua eskualdatu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan egingo da.

3. artikulua. 620 eredu aurkezteko lekua.

Bat. Aitortpenak positiboak direnean, berauen aurkezpena Zergabilketa Erregelamenduak dirubilketan laguntzeko baimentzen dituen Entitateetako batean (Banketxe, Aurrezki Kutxa edo Kreditu Kooperatibetan) egingo da.

Bi. Aitortpenak negatiboak badira, aurreko apartatuan aipatu diren entitate laguntzaileetan nahiz zerga bulegoetan aurkeztu ahal izango dira.

Xedapen Indargabetzailea.

Otsailaren 15eko 86/1990 Foru Agindua, partikularren artean ibilgailu erabiliak saldu-erosteetatik ordaindu behar den Ondare Eskualdaketen gaineko Zergari buruzkoa, indargabeturik gelditzen da 620 ereduari dagokionean.

Amaierako Xedapena.

Foru Agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean

sartuko da indarrean.

Donostia, 1997ko otsailak 27.-Antton Marquet Artola, Ogasun eta Finantza Departamentuko Foru Diputatuak. (2657)(2233)